


TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko maiatzaren 25a. IX. urtea. 2.355. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Tolosaldeko hamabost herri txikik egin dute bat zero zabor filosofiarekin

Aduna, Albiztur, Altzo, Amezketza, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa dira udalerriak

Bakoitzari dagokion hondakinen zati organikoa herrian bertan kudeatuko dute; «hondakinen kudeaketaren arazoa gure eremuan bertan konponduko dugu», esan dute **06**



Tolosaldeko hainbat alkate eta zinegotzi, atzo, Batzar Nagusien eraikineren kanpoan. E.MAIZ

Nafarroa Eguna ospatuko dute, bihar, Tolosan

Villabonako Aritza kultur elkarteak antolatuta, Ausa Gaztelu Eguna egingo dute, etzi **02**

Adunan Truke Azoka egingo dute lehen aldiz

«Diruarekin den-dena ezin daitekeela erosi» erakutsiko dute, etzi, 10:00etan **03**

Azken finalerdia jokoan, Asvinenean

Adunan Poltsikoko Antzerki Lehiaketako saioa izango da, gaur gauean **06**



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H.
INSTITUTUA

ingeleraz
ere bai

ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

AURREMATRIKULAK Maiatzaren 28tik Ekainaren 8ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Nafar Estatu gogoan izango dute Tolosan eta Ausa Gaztelun, asteburuan

Tolosan Nafarroa Eguna ospatuko dute bihar, eta Aritza kultur elkarteak Ausa Gaztelu Eguna antolatu du etzirako

Imanol Garcia Landa

Hainbat eragilek Nafar Estatu Gogoan ekimena antolatu dute Tolosan eta, bihar, ekimenari amaiera emango diote Nafarroa Eguna ospatuz herrian. Bestalde, Villabonako Aritza kultur taldeak bultzatuta, Ausa Gaztelu Eguna ospatuko dute igandean, Larraitzen zein Ausa Gaztelun bertan.

Tolosan egun osoko egitaraua izango dute. Goizean, gaiteroen eta musika bandaren dianek herriko kaleak girotuko dituzte. Ondoren, Baztango Udalarri eta Amaiurko herriari harrera egingo diote udaletxean, eta ondoren buruhandiak, erraldoiak, musika banda, dantzariak eta udal ordezkariak Nafarroa etorbideko haurren parkera abiatuko dira. Han, parkeari Amaiur izena jarriko diote eta bertan jarritako monumentua inauguratuko dute. Ondoren, giroa Alde Zaharera itzuliko da. Herri bazkaria egingo da Zerkasian, eta gauean musika talde baztandarrek izango dira Plaza Berrian.

Antolatzaileek nabarmendu dutenez, Tolosako dultzaineroek, musika bandak eta erraldoiek bals berezi bat prestatu dute, hain zuzen ere, Nicolas Garcieren *Vz-liente* balsa. Musika aldetik, instrumentu guztiak uzartu eta moldaketak egiteko lana dultzaineroek beraiek eta Enrike Arostegei bandako zuzendariak egin dute, eta doinua bateratu ostean erraldoiekin egin dituzte entseguak biharko.

Ausa Gaztelu Egunari dagokionez, igandean Txindoki ondoko mendira igoko dira, bertan dago-



Ausa Gaztelun 2009an egin zuten ekitaldiaren une bat. HITZA

↓ Egitarauak

TOLOSA

Maiatzak 25, gaur

■ **20:30.** Ibarra Alurr dantza taldearen *Izanak dirau*, 1512 emanaldia, Leidor aretoan.

Maiatzak 26, bihar

■ **09:00.** Gaiteroen dianak Tolosako auzoetan.

■ **10:00.** Gaiteroen dianak Alde Zaharrean barrena.

■ **11:00.** Tolosako Musika Bandaren diana Alde Zaharrean zehar.

■ **11:30.** Tolosako udaletxean, Baztango Udalarri eta Amaiurko herriari harrera ofiziala. Segidan, Plaza Zaharretik, buruhandiak, gaiteroen bandak, Tolosako Musika Banda, dantzariak, udal ordezkariak eta herritarrek Nafarroa etorbidera abiatuko dira.

■ **12:00.** Nafarroa etorbideko haur parkea Amaiur izendatuko dute monumentu bat jarritz, eta omenaldia ospatuko dute.

en gaztelu nafarraren aztarnetan ekitaldia egiteko. Bien bitartean, Larraitzen festa egingo dute eta nafar-gunea prestatuta izango dute. Menditik datozen ongi etorria egin ondoren, bazkaria egingo dute.

Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, «gaur egun, Ausa

■ **12:30.** Alde Zaharrean erraldoiak, gaiteroak, dantza taldea, txaranga, Iparraldeko kuxkuxtu eta Tolosa Kantari ariko dira.

■ **14:30.** Herri bazkaria Zerkasian, 15 euroren truke. Txartelak Denak, Raku, Orbela eta Sirimiri tabernetan. Gero Larraitzen dantza.

■ **22:30.** Erru Gabe, Kaskezur eta Ufestuak talde baztandarrek Plaza Berrian.

LARRAITZ ETA AUSA GAZTELU

Maiatzak 27, etzi

Goiz osoan zehar nafar-gunea Larraitzen.

■ **09:00.** Topagunea Larraitzen

■ **11:30.** Ausako Gazteluan omenaldia.

■ **12:00.** Festa Larraitzen

■ **13:00.** Menditik datozen ongi etorria.

■ **14:30.** Bazkaria (txartelak erreserbatuz).

gure herriaren oroimen lekua da: gure iraganaren eszenatokia, gure historiaren gakoak oroitu, mantendu eta hedatzea ahalbidetzen duena». Ausan «Nafarroa izan ginaren frog» aurkitzen dela diote, «Gaztelaren gerra eta indarkeriaren ondorioz galdu genuen Estatu baskoi subiranoa. Hauek ziren gure lurak, gure gazteluak, gure historia, gure presentzia mundu zabalean».

Iragarki laburrak

GALDUTAKOAK

■ **Argazki kamera.** Pasa den maiatzaren 22an, Leidorren ospatu zen Bertsolaritza Jaialdian argazki kamera bat galdu zen. Aurkitu duenak, deitu mesedez 618 102471 edo 943 674565 telefono zenbakietara. Mila esker alde z aurretik.

Gaztañaga eta Regillaga, profesionalen pare, Bilboko Triatloian

TTT-Mahala taldeko Maider Gaztañaga ordizarrak bigarren egin zuen eta Aitor Regillaga tolosarrak hamargarren

Erredakzioa

Pasa den asteburuan Bilboko Triatloian emaitza oso onak lortu zituzten Tolosaldeko Triatloi Taldea-Mahala taldeko kirolariek. Batez ere, Maider Gaztañaga ordizarrak eta Aitor Regillaga tolosarrak maila bikaina eman zuten eta profesionalen pare aritu ziren nazioarteko maila duen proban. 650 partaide inguru izan ziren, hauetatik 50 emakumezkoak, eta guztira bederatzi TTT-Mahala taldekoak.

Maider Gaztañagak bigarren postua lortu zuen, Virginia Berasategi kirolari profesionalak bakarrik gainditu zuelarik. Beste profesional ugari ere izan ziren bertan, baina guztiei gailendu zitzaizkien Gaztañaga. Uretatik Berasategirekin batera atera zen bigarren postuan eta helmugara arte

mantendu zuen bai bizikleta eta korrikako saio bikainak eginez. «Benetan aipatzekoa da lorpen hau», azaldu dute TTT taldekoek. Itsaso Leunda hernialdetarrak proba 13. postuan amaitzea lortu zuela nabarmendu dute TTT taldekoek. «Hilabete onaren baten ondorioz ezin izan baitu entrenatu».

Mutilen aldetik, probako irabazlea Mikel Elgezabal gernikarra izan zen eta aipatzekoa ere bertan zegoen maila altuarekin Aitor Regillaga tolosarrak lortutako 10. postua, bizikleta gainean onenen pare dagoela erakutsiz. Bestalde aipatzekoa ere tolosarren parte hartze onaren ondorioz taldekako sailkapen orokorrean lortutako bosgarren postua, podiumeko postuetatik oso gertu. Bertan izan ziren hori posible egiteko: Gorka Sarasola (59), Edu Gonzalez (69), Ion Marin (71), Asier Saez (87), Alar Sevillano (207) eta Iñigo Esnaola (243). Alberto Vaquero ere bertan izan zen, baina aurreko postuetan zihola, bizikletan arazo mekanikoak izan ondoren proba bertan behera utzi behar izan zuen.

Berrobi eta Bidegoian Herriarteko Txapelketan sartuko dira lehian

I. Garcia Landa

Herriarteko Pilota Txapelketan Berrobi eta Bidegoian eskukoan sartuko dira lehian asteburu honetan. Gaur, Berrobik oartzuarren bisita jasoko du, 19:00etan. Bidegoianek Urretxuren aurka du kanporaketa, eta joneko etxetik kanpo du. Igandean jokatu dute, 11:00etan.

Bestalde, zesta puntan Tolosak

ligaxkaren hirugarren jardunaldia izango du asteburuan. Donostiaren aurka jokatu dute, igandean, 10:00etan, Donostiako Karmelo Balda frontoian. Aurreko asteburuan Zumaiaren aurka jokatu zuten tolosarrek eta bi partidatu galdu eta bai irabazi zuten. Zehazki, kadeteetan 30-17 galdu zuten, jubeniletan 35-12 galdu zuten eta nagusietan 23-35 irabazi zuten tolosarrek.

→ Laburrak

Alarde Napoleonikoa jarraitzeko aukera berezia

TOLOSA › II. Alarde Napoleonikoa antolatu du ekainaren 3rako Andia kultur elkarteak. Egun horretarako aukera berezia prestatu dute, alardearen azalpena, bazkari napoleonikoa eta bisita gidatua barne hartzen dituena. Guztiaren prezioa 35 eurokoa izango da. Erreserbak eta informazioa Tolosaldea Tour bulegoan, tour@tolosaldea.net helbidean edo 943 69 74 13 zenbakian.

Bixiguaren Festa ekainaren 15, 16 eta 17an

TOLOSA › Tolosako Bixiguaren Festa ekainaren 15, 16 eta 17an izango da aurten. Jaia Txinparta elkartearen izango da eta euskal parrillero onenetakoek prestatutako bixigua dastatzeko aukera izango da. Lekua hartzeko Tolosaldea Tourreko 943 69 74 13 zenbakira deitu behar da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Larraulen ere Truke Eguna egin zuten iaz, lehen aldiz. SARA GOMEZ

Diruaren balioa hutsaren hurrengoa izango da Adunako Truke Azokan, etzi

Aiztondoko Denbora Bankuak antolatu du merkaturia, proiektua bera ezagutzera emateko asmoz

Asier Imaz Aduna

Adunako plazan Truke Azoka egingo dute etzi, hilaren 27an. 10:00etatik 14:00etara zabalduko ditu atea merkaturia, eta diruaren balioa hutsaren hurrengoa izango da. Aiztondoko Denbora Bankuak antolatu du azoka, *Ekarrri behar ez duzuna, eta behar duzuna eraman* lelopean. Goizean zehar musika, eskulan tailerra eta bideo emanaldia egongo dira, egitarau horren barruan, 11:00etan, mahai ingurua egingo dute. Adunako kultur aretoan, hainbat herritako denbora bankuko ordezkariak egingo dira, proiektuaren inguruan hitz egiteko gogoz.

Orduak trukatzeko aukera

Itsaso Gonzalez Aiztondoko Denbora Bankuko kidea da. Truke Azoka antolatzearen arrazoien

artean, denbora bankuaren lana azpimarratzea dagoela dio: «Gure proiektua kalean ezagutzera emateko aukera polita iruditu zitzaigun. Jendeak gurekin bat egitea nahi dugu, denbora bankuan parte hartuz, eta merkaturia horrekin loturik dago, beste ekitaldi bat gehiago bezala».

Truke merkaturietan, sarri, arazo bat sortzen dela dio Itsaso Gonzalezek, eta hori konpontze aldera, denbora bankuaren filosofia txertatu dute etziko azokan: «Batzuetan gustuko zerbaitek ikusten duzu mahai batean, baina truke-rako ez daukazu ezer, edo alde-rantziz. Horri irtenbidea emate aldera, orduak trukatzeko aukera jarriko dugu; jarduera baten trukea izango litzateke. Ea jendeak zer eskaintzen duen».

Aiztondoko Denbora Bankuak hiru urte ditu, eta urtetik urtera handitzen doala dio Gonzalezek. Horrelako ekimeneen helburua, hain zuzen, denbora bankua bera bultzatzea da. Proiektuaren filosofiaz galdetuta, ondorengoa erantzuten du: «Dena ez da dirua, eta hori erakutsi nahi dugu; diruarekin den-dena ezin daitekeela erosi. Gure artean trukean has-

ten baldin bagara, beste bizimodu duinago bat egitea posible izango litzatekeela uste dugu».

Filosofia horretan urratsak emateko beharrezkoa da jendearen ekarpena. Lehen urratsa etziko izan daiteke, Truke Azokara gerturatzea: «Eskualdeko herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu azokara. Joan daitezela eta ikus dezatela. Denbora bankuko kideok ere bertan egongo gara mahai batekin, eta gugana ere hurbil daitezela egiten ari gara gertuagotik ezagutzera. Askotan ez gara jabetzen, baina edonork edozer egin dezake: ipuin bat kontatu, aiton-amonekin hitz egin, autoz medikura eraman pertsona bat, egunkaria irakurri... guri tontakeria iruditzen zaigun hori, beste bati agian, oso ondo etortzen zaio».

Adunako Truke Azokari buruzko informazio gehiago lortzeko, edo bertan mahai bat jartzeko, Aiztondoko Denbora Bankutik telefono zerbaki bat zabaldu dute: 943 69 39 30. Horrez gain, helburu berdinekin, *aiztondokodenborabankua@gmail.com* helbide elektronikora idazteko aukera dago.



Tik-Tak antzerki taldea finalean egongo da. HITZA

Finalerako azken urratsa gelditzen da poltsiko lehiaketan

Lehen finalerdian, Tik-Tak eta Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak finalerako txartela lortu dute

A. Imaz Aduna

Asvineneako Antzerki Poltsiko Lehiaketa finalaren atarira iritsi da. Gaur, bigarren eta azken finalerdia jokatuko dira, 22:30ean, Adunako arte eszenikoaren laborategian. Lau antzezlan aurkeztuko dituzte gaurkoan oholta gainean, eta hauek bi finalera pasako dira. Beste bi finalistek iragan ostiralean lortu zituzten azken galarako txartelak, hain zuzen ere, Tik Tak eta Aldatzen Laguntzen taldeek.

Hauekin lehiatzeko irrikan, ondorengo antzezleak ariko dira bigarren finalerdian: Vantare taldea, *Oh Fortuna*; antzezlanarekin; Mutandus Russum *Tarta-taratata!* antzerkiarekin; Angelo Caduto *Al otro lado del espejo-reborabankua*; eta Compañía La Que Tu Me Haces teatro *El pan nuestro de cada día danoslo hoy* lanarekin. Final handia, ekainaren 1ean izango da.

Gala bakoitzean artista gonbidatuak eraman dituzte Asvineneako kideek, eta gaurkoan, La Zigarra y el Grillo bikotea ariko dira gitarra eta biolina astintzen.

Iragan ostiraleko finalerdia

Lau antzezlan eta lau talde aritu ziren finalerako txartela lortu nahian, gogotsu. Asvineneatik azaldu dutenez, «finalurrekoa izan arren, artistek erakutsitako maila onarekin finala zirudien».

Behin epaileen emaitza jakin ondoren, antolatzaileek eskerrak eman zizkien guztiei; zorian hitzak, bi finalistentzat izan ziren: «Tik-Tik taldea zorian dugu, finalerako bidaia jarraitu ahal izango duelako, publikoak emandako botoari esker. Helmuga berdina iritsiko da Aldatzen Laguntzen. Epaimahaiak, horrenbeste eskatu zuten aukera hori eskaini zioten».

Eguraldia lagun izan ez arren, giro ederra egon zen lehen finalerdian, eta berriro ere, «gure etxe honetan, askotan lortzen dugun magia suertatu zen euria, ikusle-goaren presentzia eta antzezlarien lanak bat egin zutenean; lehenengoz gerturatzen den edonor maiteminduz», azaldu dute Asvineneatik.

→ Laburrak

OnddoRock 12 musika jaialdia, bihar, 19:00etan

VILLABONA OnddoRock 12 jaialdia bihar egin egingo dute, plazan. 19:00etatik goizaldera arte musikak ez du etenik izango. Sarrera doan izango da eta ondorengo taldeak ariko dira: Glaukoma Soud System, Matria Gris, Switch, Flatteneg Frog Massacre, Lua eta 3gabe2.

Zimiterioko txapelketan izena emateko aukera

ZIZURKIL Ziotza Kirol Elkarteak hamargarren urtez Zimiterioko Binakako Esku Pilota Txapelketa antolatu du. Izena emateko epea ekainaren 4ra arte zabaldu dute; horretarako 616 96 11 53 edo 649 70 34 72 zenbakira deitu behar da. Bikoite bakoitzak 10 euro ordaindu beharko du. Irabazleek afaria eta 100 euroko saria irabaziko dute, eta bigarren gelditzen direnek, afaria eta 50 euro. Finala abuztuaren 16an da.

Haur eta gazteentzat udalekuak, herrian bertan

IRURA Udalak 3-11 urte bitarteko haur eta gazteentzat udaleku irekiak antolatu ditu *Goiza Pasa pasa* lelopean. Ekaineko azken hastean hasi eta uztailearen 27an amaituko da ekimena. Izena emateko epea ekainaren 8an amaitzen da. Bestalde, 12-17 urte bitarteko gazteek Gaztelekuko *Goiza Pasa* ekimena izango dute. Hau prestatzen laguntzeko, gaur 17:00etan, batzarra egingo dute, eta gazteak bertara deitu dituzte.

irabazleak sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera** pare ditu



Alurren
ikuskizun
berria

• Ainaro Apezetxea (Ibarra) • Milagros Lopetegui (Ibarra)

Maiatzak 25 • Ostirala • 20:30ean • Tolosako Leidorren

Sarrerak lehiatzen bertan izango dituzte.

Harresiz inguraturiko hiribildua zen garai batean Tolosa. Oria ibaiaren ertzei jarraituz, antzinako eta gaur egungo txokoak ezagutzeko aukera eskainiko du ibilbideak, Gipuzkoako hiriburu zaharrear barrena.

Harresietatik harago hazi zen hiribildua

Itzea Urkizu

Lehendik ere herri biza zen arren, 1256an hartu zuen Tolosak, izen ofiziala. Gaztelako erregeak itsasorako bideak irekitzeko helburua izateaz gain, ez omen zuen begi onez ikusten, Nafarroako Erresumak euskal lurralde guztiak bateratzeko zuen asmoa. Horrela beraz, Nafarroa eta Gipuzkoa arteko bide esanguratsuenetan Tolosa eta Segura sortu zituen. 756 urte igaro dira jada orduz geroztik, baina Tolosan barrenako ibilbideak Erdi Aroko nahiz Aro Moderno eta Garaikideko hamaika arrasto ezagutzeko aukera eskainiko du.

Tolosa erdialdeko tren geltokitik abiatuta, eskuinaldera joan

berharko du ibiltariak, Pablo Gerosabel edo Rondilla kalean gora, Trianguloa plazara iritsi arte. Tolosa 1844 eta 1854 artean Gipuzkoako hiriburu izan zeneko eraikina ikusi ahal izango da bertan; gaur egun kultur jardueren aterpea den arren, Foru Aldundiaren egoitza izan zen orduan, eta aurrean du, herriko plazarik bizienetakoa dena. Bisitariak XVII. mendeko Gaztelako atea eta Jorge Oteizaren Atauts eskultura ere ikusi ahal izango ditu plazan.

Kalean gora jarraituz, San Frantzisko pasealeku luzearen ertzetan Gipuzkoako Artxiboa nahiz Beotibar pilotalekua ikusiko ditu bisitariak, eta Araba etorbide amaierara arte jarraituko du bideak.

Oria eta Araxes ibaiek bat egi-

ten duten lekuan buelta hartu eta ibaiari jarraituz, Iurreamendi pasealekutik barrena osteratxo ederra emateko aukera izango da, Berazubiko estadio parera iritsi arte. Zezen plazaren aldamenetik, Zumalakarregi pasealekuak ibai ertzari jarraituko dio ezkerretatik, Laskoaingo ibarra zeharkatuz, Zubi Berrira iristeko.

Tolosako ikuspeirik ezagunetakoz gozatu ahal izango da bertatik, Uzturreren babesean: Santa Mariako kanpandorea, Zerkausia, Idiakez jauregia eta Nafarroako zubia. Nafarroako Errege bidea zubi honetatik igarotzen zen antzina, gaur egungo Kale Nagusitik barrena.

Ibaia gurutzatuz, Santa Klara komenturaino bertaratu, eta garai bateko herriko sarreretako ba-


tera iritsiko da ibiltaria. Izan ere, Tolosa harresiz inguratutako uhartea zen, Oriak eta bere adar batek inguratuta; bost ate zituen sartzeko.

Ibai Ondo pasealekuari jarrituz gero, Gorriti plazara iritsiko da ibilbidea. Kale Nagusitik gora, Berdura plazara eramango du kaleak bisitaria, eta egungo udalteea dagoen Plaza Zaharra ere metro batzuk aurrerago ikusi

ahal izango da. Bertan, XVII. mendeko Idiakez eta Aranburu jauregiak interesgarri suertatuko zaizkio bisitariari, eta baita 1548-1643 artean eraikitako Santa Maria parrokia ere.

Oria ibaiaren ertza inguratuz osatutako ibilbidea, merkatari eta nekazarien azokak egiteko eraikitako Zerkausian amaituko da, geltokira itzuli aurretik.

• tolosa@hitza.info



DATUAK

- **Luzera.** 4.900 metro.
- **Ezaugarriak.** Bira.
- **Hurbilketa.** Aldiriko Renfe trenean.
- **Hasiera-bukaera.** Tolosako erdialdeko tren geltokian.
- **Zailtasun maila.** Tolosako erdiguneko tren geltokiko eskilarak.
- **Azalpenak.** Hiri-ibilbidea, hainbat zatitan ibai ertzetik.
- **Interesguneak.** Iturriza, Idiakez, Aranburu eta Atodo jauregiak; Andia dorrea; Santa Maria eliza; Gorrotxategi gozogintza museoa; Topic zentroa; Turismo bulegoa eta kalean dauden hainbat eskultura.



HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA

Agenda
DEIALDIAK

- **Zizurkil.** Gaur, 19:00etan, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua, Atxulondon.
- **Tolosa.** Alurr dantza taldearen *Izanak dirau, 1512*, gaur, 20:30ean, Leidor aretoan.
- **Alegia.** Eriz Magoaren emanaldia gaur, 17:00etan, kultur etxean.
- **Tolosa.** Euskal Herria Sozialistaren Aste Iraultzailearen barruan, bihar, 19:30ean, Engels ateneoan, *Grezia: langile klasearen borroka eta iraultza sozialista* hitzaldia euskaraz, Iker Oterminen eskutik.
- **Berrobi.** Begi Gorri gaztetxeak antolatutako bertso bazkaria, bihar.
- **Asteasu.** Aiztondo eta Segundo Montes komunitateko IV. Se-nidetze Eguna, bihar, 11:00etan harrera; ondoren, haur jolasak, talogileak eta gizapropa; 13:30ean harrera ofiziala udal-txean; eta ondoren, bazkaria.
- **Tolosa.** Udaberri dantza taldearen eta Lask abesbatzaren *Alami, hosto baten egaldia* emanaldia igandean, 12:00etan, Leidorren.

KULTUR ASTEAK

- **Berrobi.** Kultur astearen barruan, gaur, 17:30ean, eskolako aretoan, antzerki eta musika emanaldia.
- **Leitza.** Kultur Aroaren barruan, gaur, 17:30ean, Erleta eskolako haurren emanaldia; 20:00etan *Gran Paradiso mendia* proiektzioa, Atekabeltzen, eta elkartasun elkitaldia Lopenean; eta 23:00etan, La Joderaren kontzertua, Torrean. Bi-har, 07:30ean Donostia-Oriomendi irteera, eta ondoren, txistulari eguneko ekitaldiak. Igandean, azoka eguna.
- **Irura.** Kultur astearen barruan, gaur, 18:30ean, Kulturuneko musika gelan, Loatzo musika eskolako ikasleen kontzertua; bihar, 18:00etan kantujira, 19:15ean patata tortila lehiaketa, 20:30ean, elizako arkupean, barrikotea, eta 22:30ean, frontoian, Alurr dantza taldearen *Izanak dirau, 1512*.

JAIK

- **Bedaio.** Gaur, 09:30etik 13:30era, ogia egiten ikasteko tailerra; 17:00etan, ume eta gaztetxoentzako Maite Franco ipuin kontalaria, Artubin; eta 19:00etan, *Lezio berri bat os-trukari buruz* irakurketa saioa. Igandean, 11:00etan, Karrikatik eskoletxera doan bidearen zahar berritzearen inaugurazioa (Artubitik abiatuta egingo dute bidea, Abaetxen bukatzeko).
- **Xarama.** Gaur botako dute, 21:00etan, jaietako suziria, ondoren barrikotea, eta jarraian

Txan magoa; bihar, 10:30ean, arku tiroa, 12:00etan, toka txapelketa, 13:00etan pintxo lehiaketa, 16:30ean herriko dantzariak, 17:00etan ume jolasak eta txokolate jatea, ondoren *Patata tropikala* antzezlan, 21:00etan herri afaria, eta eguna bukatzeko Iker Zubeldia eta Peñagarikano bertsolariekin kantaldia.

■ **Ibarra.** Izaskun auzoko jaiak: bihar, 17:30ean, zaldi lasterketa; eta ondoren, pintxo eta sagardo dastatzea. Igandean, 12:00etan

herri kirolak; 14:30ean, bazkaria; ondoren, Egaña eta Zubeldia bertsolariak; 18:00etan Gorritiren animaliak; eta 19:00etan, herriko trikitilarien erromeria. Astelehenean, 10:00etan, herriko trikitilarien diana, 11:00etan, meza nagusia, 12:00etan ha-maiketakoia, 13:00etan bertso saioa Sebastian Lizaso eta An-jelmari Peñagarikanorekin, 17:30ean Alurr dantza taldearen emanaldia, jarraian haur-errentzako gozokiak, 18:30ean bertso saioa Lizaso eta Peñaga-

rikanorekin, eta 19:00etatik 20:30era erromeria.

ZINEMA

- **Tolosa.** Bi-har Leidorren, *Gazta zati bat* 19:30ean, eta *La pesca de salmón en Yemen* 22:30ean; eta igandean, 17:00etan *Los vengadores*, 19:30ean *La pesca de salmón en Yemen* eta 22:00etan, *Gazta zati bat*.
- **Villabona.** *Gazta Zati bat* igandean, 21:00etan, Gurea zinemari.

MUSIKA

- **Tolosa.** Bonberenean, gaur, 22:30etik aurrera Eraso, eta bihar, ordu berean, Gose.
- **Villabona.** OnddoRock 12 jaialdia bihar, 19:00etatik aurrera, Glaukoma Sound System, Materia Gris, Switch, Flatteneg Frog Massacre, Lua, eta 3gabe2 taldeekin.
- **Ibarra.** Santa Maria Musika Kaperak emanaldia eskainio du igandean Izaskun auzoko elizan, 11:00etatik aurrera.

kutxabank

Zure Kutxa txartelek egunez egun gero eta gehiago ematen dizute.

Maiatzean egindako erosketak dohainik izan daitezke*.

Ordaindu zure Kutxa txartelek eta zure maiatzeko erosketetan gastatutako dirua itzultzeko 500 sariren zozketan sartu zaitezke.

kutxa
gehiago gara.

* Kontsultatu sustapen honen oinarriak www.kutxa.net/webgunean (notariztan aurkeztutako oinarriak)

Tolosaldeko hamabost herri txiki zero zabor herri bihurtuko dira

Herri bakoitzak dagokion zati organikoa herrian kudeatuko du; erritmo ezberdinean garatuko dute bilketa

Eneritz Maiz

Aduna, Albiztur, Altzo, Amezketa, Asteasu, Baliarrain, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain eta Orexa herri txikiak alkateek eta zinegotziek zero zabor herri bihurtzeko asmoa dutela adierazi zuten, atzo.

«Hondakinen kudeaketaren arazoa gure herrietan bertan konponduko dugu», nabarmendu zuten. «Auzolana zer den badakigu, eta 15 herri txikiok konpromisoa hartzen dugu guk sortzen dugun zati organiko guztia, kanpora eramanez, gure herrietan konpostatzeko», gaineratu zuten. Herri txikiak izan arren, «bertan bizi garen herritarrok oso jakitun gara egun hondakinen kudeaketa ez dela eraginkorra. Gu landa eremuarekin oso lotuak gaude, eta gure herriak eta herritarrak zaindu nahi ditugu. Gipuzkoako lurra eta erreka, gure eta gure ondorengoen altxorra dira. Ez dugu Gipuzkoa kutsatu eta zikin bat nahi», azaldu zuten.

Hedabideen aurrean gutxitan ikusten ditugula esan zuten: «Gurea lan isila da, egunerokoa, lan xumea, baina eraginkorra». Atzo,



Tolosaldeko herri txikiak ordezkariek batzuk Batzar Nagusietan, atzo. E. MAIZ

Batzar Nagusietan elkartu ziren herri txikiak ordezkariek. Inko Iriarte, batzarkide tolosarra ere lagun izan zuten, agerraldian.

«Herri txikiak gara, baina urrats handiak ematen dakiten herriak gara. Konpromiso handiak hartzen dakiten herriak», ekarri zuten gogora herri txikien izenean, Eneko Maioz Orexako alkateak. «Harro diogu, zero zabor herri ereduak izango garela, lehenak, baina ziur gaude atzetik gehiago etorriko direla, beste alternatibarik ez baitago Gipuzkoa garbi, jasangarri eta osasuntsu batean bizitzeko», azaldu zuten.

Gainerako herriei deia

Tolosaldeko hamabost herri txiki hauek, gainerako herri txiki nahiz handiei dei egin zieten: «Gu baino handiago diren herrietako eta hirietako alkate zein bizilagunei dei egiten diegu, denon artean, Gipuzkoa zero zabor lurralde-

runtz urratsak eman ditzagun. Gu, biharko Gipuzkoa, gaur bertatik eraikitzen hasiko gara».

Herri bakoitzak bere erritmora garatuko du hondakinen bilketa sistema, baina guztiak elkarrekin egingo dute aurrera: «Herritarre-

tolosaldea.hitza.info



tolosaldea.hitza.info-n ikus daitezkeen bideoaren QR kodea.

kin batera herri bakoitza bere erritmora egokituko da, batzuk bizkorrago eta beste batzuk motelago... baina garbi dugu hondakinen prebentzioan, berrerrabilpenean eta birziklapenean oinarrituko dela gure zeregina», esan zuten. Eta «hitza beteko dugu», nabarmendu zuten.

Herri bakoitzak bere erara an-

tolatuko du bilketa, baina sortzen duten organiko guztia herrietan kudeatuko dute. «Merke aterako zaigu, ingurumenean ez dugu kalterik egingo, eta dirutan ere merke aterako zaigu. Orain arte ez bezala, hondakin guztiak nahastuta biltzen dituzten herrien gastuen ordaina ez dugu gure herri hartuko», gaineratu zuten herri txikiak ordezkariek.

Hondakinen inguruan batzuk polemika sortzen saiatzen ari direla ekarri zuten gogora. Herri txikiak ordezkariek, ordea, egin duten urratsaz «oso harro» daudela adierazi zuten: «Irrikitzen gaude zero zabor herri bihurtzeko. Gauzak ondo egin nahi ditugu, eta ondo egitera goaz. Ez dugu eskubiderik beste herri batek gure zaborra irentsi dezan, eta ez dugu nahi gure airea errauste planta batek pozoi dezan. Gure soro eta baratzeak garbi nahi ditugu», nabarmendu zuten Maiozek.

2.300 lagun aterako dira igandean XIV Orduak egiteko

68,5 kilometro egin beharko dituzte; garraio publikoa jarri dute Tolosatik Amezketa joan etorria egiteko

E. Maiz Tolosa

Iristear da egun handia. Igande goizaldean aterako dira Tolosako Berazubitik milaka lagun XIV Orduak egiteko. Guztira 2.300 bat lagunek hartuko dute parte.

Tolostatik, 05:00etan hasiko dira mendizaleak ateratzen, eta Ulietik 2 ordu pasatxo inguru igarota pasako dira. Gorritira, 18,7 kilometro eginda iritsiko dira 3 ordu, gutxi gorabehera. Ondoren, Lekunberrira iritsiko dira eta 5 ordu eta 15 minutu inguruan igaroko dira. San Migelerako bidea hartuko dute, eta bertara iristeko ia 8 ordu beharko dituzte. Igaratzara, berriz, 47,3 kilometro eginda iritsiko dira ia 10 ordutan. Amezketa, 12 ordu inguru ibilita iritsiko dira, eta Tolosara, 68,5 kilometro eginda iritsiko dira, 14 orduak pasata.

Garraio publikoa jarri dute Amezketa autobusean joateko. Autoak pilotzea ekidin nahi dute antolatzaileek. Tolosatik lehen autobusa 15:00etan abiatuko da, eta hortik aurrera orduerdio aterako da. Zezen plazatik aterako dira. Bueltarako, berriz, Amezketatik azken autobusa 21:30ean irtingo da.



harpidedun izateak badu saria irabazleak

1 Arregi Jatetxea Bi lagunentzako barkaria edo afaria

• Nerea Gonzalez (Leitza)


Eskaera egiteko, hilabete:
Herriko plaza, 7 • Berastegi
Tel.: 943-68 30 59



2 Fronton Jatetxea Bi lagunentzako barkaria edo afaria

• Maritxu Uribe (Tolosa)

Eskaera egiteko, hilabete:
San Frantzisko ibiltokia, 4 • Tolosa • Tel.: 943-65 29 41
www.restaurantefronton.com



3 Euskal Eskola Publikoaren XXI. jai Bi elastiko

• Alkizako Herrik Eskola
• Joxepa Tolosa (Amezketa)

Saridunek etxean jasoko dute elastikoa.

www.ehige.org/jai2012/



4 EUREKA! zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera

• Javier Ezeiza (Alegia)
• Peio Etxebe (Tolosa)

Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, bi hilabetez.

Mikeletegi, 43-45 • Donostia • Tel.: 943-01 24 78 • www.eurekamuseoa.es



Irudia ▶ Bedaio**HARRI JAIA ETA GERO ERE, FESTA**

Bedaion, ohiturari jarraiki, Harri Jaia egin zuten atzo. Meza eta hamaiketakoak izan zituzten eguna hasteko, eta ondoren, Zeberio eta Mañukorta aritu ziren bertsotan (irudian). Bihar eta etzi ere izango dituzte ekitaldiak, hala ere; bihar, ogia egiten ikasteko tailerra egingo dute 09:30etik aurrera, 17:00etan ipuin kontalaria egongo da, eta 19:00etan, *Lezio berri bat ostrukari buruz* irakurketa saioa egingo dute. Igandean, 11:00etan hasita, Karrikatik eskoletxera doan bidearen inaugurazioa egingo dute. L. GARCIA LANDA

Irudia ▶ Tolosa**EKINTZAILEAK GERTUAGO**

Bukatu dira Tolosaldea Garatzenek eta Tolosaldea Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutuak gazte ekintzaileak prestatzeko antolatutako jardunaldiak. *Ekiten ikasi, bizitzen ikasi* izenpean egin dituzte eta 30 bat ikaslek hartu dute parte. Erdi eta goi mailako zikloa burutzen ari diren ikasleei ekintzailetasunari buruzko informazioa emateaz gain, «etorkizunean lan munduan sartzeko egiazko aukera baten inguruko hausnarketa egitea» izan dira ekitaldioko helburuak. HITZA

«Herritar uholdea» plazatik azken ostiralera eramán nahi dute

Preso eta iheslarien aldeko elkarretaratzeak egingo dira gaur, eskualdeetako herri gehienetan

A. Imaz

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Herri mugimenduak elkarretaratzeak egingo ditu gaur, hileko azken ostiralean. Eskualdeetako herri gehienetan egingo dira mobilizazioak, eta *Goazen Plazara!* ekimenari jarraipena eman nahi diote: «Aurreko larunbatean, maiatzaren 19an, herrietako plazetan lortu genuen herritar uholdea azken ostiraleroko elkarretaratzeetara animatzen dugu, gurekin batera, preso eta iheslarien eskubideen alde mobilizatzeko».

Kalean egingo dituzte ekimenak «oso garrantzitsutzat» jo dituzte Herritarrik: «Herri mobilizazioa eta herritarren aktibazioa izango da estatuak espesxe politi-

↓ Azken ostirala

Aduna. 20:00etan.
Alegia. 19:30ean.
Armezeta. 19:30ean.
Anoeta. 19:30ean.
Asteasu. 20:00etan.
Berrobi. 19:30ean.
Berastegi. 19:30ean.
Gaztelu. 20:30ean.
Ibarra. 19:30ean.
Ikaztegieta. 20:30ean.
Irura. 19:30ean, plazan.
Leitza. 20:00etan.
Lizartza. 20:00etan.
Orendain. 20:00etan.
Tolosa. 19:30ean.
Txarama. 20:15ean.
Villabona. 20:00etan.
Zizurkil. 20:00etan.

ka anker hau aldatuz, giza eskubideen errespetuaren eta konponbidearen klabeetara pasatzea behartuko dituen». Guzti horren gain, eskualdeetako herritarrei kalera irteteko eskatu diete.

Asuncion klinikako webgunean historia-klinikoa ikusteko aukera

Rebeka Calvo Tolosa

Asuncion klinikako webgunean historia-klinikoa ikusteko eta kontsulta zein proba hitzorduak eskatzeko aukera jarri dute. Aplikaziora sartzeko behar den dokumentazioa eta gako pertsonalak

lortzeko, ospitaleko edo Tolosako Belateko osasun zentroko harre-ra mahaiean dauden inprimakiak bete behar dira. Orriak NANarekin batera entregatu behar dira, eta aplikazioa www.clinicadelasuncion.com webgunetik deskargatu daiteke.

Kirol jarduerak ez du etenik izango asteburuan

R. C. Tolosa

Astebururo bezala, Tolosan, kirol jarduera ugari izango dira asteburuan. Biharkoari dagokionez, Usabal kiroldegiko goiko kantxan, saskibaloia izango da, 10:30etik 13:00etara; lehenengo Triki Take-Bergara, gero T. Aldaba-Zast, eta, bukatzeko, Take-Easo. 16:00etatik aurrera Tolosa Kupeko partidak izango dira. Be-

heko kantxan, berriz, eskubaloia izango da 12:00etan: Tolosa-Ordizia; eta futbol zelaian Tolosa CF-Villabona. Igerilekuan, bere alde-tik, Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa egingo dute egun guztian zehar. Bukatzeko, Berazubin, Tolosa CF-Ostadar ikusi ahal izango da.

Igandeari dagokionez, Berazubi XIV Orduak probako eremua izango da.

→ Laburrak**TAOrako bulego berezia asteartean irekiko dute**

IBARRA ▶ Ibarra Udalak TAO zerbitzuaren inguruko informazioa emateko prestatutako bulegoa astelehenean irekitzen dute, baina datorren astelehenean, hilak 28, Ibarra jai ofiziala denez, hurrengo egunean, asteartean, irekiko dute. Ekainetik aurrera ere itxita egongo da, eta TAO zerbitzuari buruzko tramiteak ohiko bulego orduetan egin beharko dira.

Santa Maria Musika Kapera, Izaskunen, etzi

IBARRA ▶ Igande honetan maiatza bukaerako meza nagusia egingo dute Izaskungo elizan, eta, bertan, Tolosako Santa Maria Musika Kaperak kontzertua eskainiko du, 11:00etatik aurrera. Musika kaperak 70 kantarik eta 20 musikaririk osatzen dute, eta igandean organo jotzailea Pepe Arzallus izango da, eta Maite Crespillo, Javier Yarza, Jexusmari Jauregi, eta Joseba Garcia Artetxe izango dira bakarlariak.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



≈ 28°
≈ 15°

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	17°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@hitza.info

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Iturrioz, I.
Euskal Herria, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Tolosa.** Azpiroz, L.

Amarotz auzoa, 9.
Telefonoa:
943 67 51 18.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa:
112.

ETZI

■ **Ibarra.** L. Lejeune,
Euskal Herria, 46.

Telefonoa:
943 67 32 74.
■ **Leitza.** Campos, M. Z.
Elbarren, 52.
Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Bronte, C. I.
Korreo kalea. 20.
Telefonoa:
943 67 60 13.

■ **Leitza.** Larraia,
M. I. Elbarren, 95.
Telefonoa:
112.

HITZAK ez du bere gain
hartzen egunkarian
adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Agurrak

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak



**Tolosan etxe
adosatua salgai:**
eguzkitsua, lau gela,
bi bainugela,
komuna,
egongela-jangela
handia, sukaldea,
bi autorentzako
garajea, txakoa,
jardina eta
trastelekua.

Interesatuak, deitu
678 267657
telefono zenbakira.

**Askaezazu
irudimena zure
DISEINATU**



**ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA
ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN**

Hertz Pasealekua 96 • 48008 Donostia • Gipuzkoa • **943 310 873** • www.ceinpro.es

**ESKOLA TXIKIEN
FESTAK 25 URTE**
Ekainak 3, Larraulen

Puzgarniak - Pirritx eta Porrotx -
Zezenak eta Pottokak -
Kupela taldea - tailerrak -
Eskola Txikien dokumentala -
erakusketa...

**IES MONTE
ALBERTIA BHI**

**IRUDI PERTSONALAREN
HEZIKETA-ZIKLOAK**

ERDI-MAILA	12 kreditu eta 120 orduko irudi heziketa zikloa.	12 kreditu eta 120 orduko irudi heziketa zikloa.
GOI-MAILA	18 kreditu eta 180 orduko irudi heziketa zikloa.	18 kreditu eta 180 orduko irudi heziketa zikloa.

**SALESIANOS urrieta
SALESIARRAK**

**LANBIDE HEZIKETA
FORMACIÓN PROFESIONAL**

Diseno grafiko, Informatika, Serigrafia, Makondia, Elektrotutua, Elektrotutua, Diseno Grafiko, Informatika, Serigrafia, Makondia, Elektrotutua, Elektrotutua

**MATRIKULAZIOA
MATRIKULACION**

Matxuzaren 28tik ekainaren 8ra,
Del 28 de Mayo al 8 de Junio.

zatoz ven

www.salesianosurrieta.com

Ezenarro

SAN FRANTZISKO 26, Behea
20400 TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36

GARMENDIA OTAOLA 3, Behea
20200 BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

ezenarrosl@hotmail.com

PVC • ZUBI TERMIKOAREN HAUSTURA • AROZTEGI MISTOA • POLIURETANO • BARANDAK • HORMA-ARMAIRUAK